



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2019-05-09

BILERA ZENBAKIA:59

ORDUA ETA LEKUA: 18:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Maider, Aiora, Marijo, Itziar

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKEN AKTAREN ONARPENA.
2. HARRERA EGUNA
3. GUZTION HERRIA.
4. BERDINTASUN PLANA.
5. ETXEBIZITZA SOZIALAK.
6. BESTEAK.

1. AZKEN AKTAREN ONARPENA

Azken akta onartu da.

2. HARRERA EGUNA

Harrera egunean banatzen den esku orria eguneratu egingo da. Horrez gain orain arteko formatua aldatzea erabaki da. Paseoa eman beharrean Udaletxe parean elkartu, elkar aurkeztu eta elkartera joatea da planteamendu berria. Bertan lunch batekin esku orria erreparasatuko da. Paseoa ez da emango eta lekuak maparen bidez kokatuko dira.

Eguna baino lehen egitekoak:

1.Harrera egiten dutenekin kontaktatu:

- eskola
- euskara taldea.
- jubilatua.
- haur eskola (beharra ikusten bada)
- itzultzailea (behar bada)




2. Herritar etorri berriei deitu:
3. Esku orria eguneratu.
4. Itsasondoko mapa lortu.
5. Luncherako erosketak egin eta luncha prestatu.
6. Prentsari deitu.

3. GUZTION HERRIA:

3 printzipio finkatu dira herri mailan: Herri identitatea, guztion herria eta herritik herritarrentzat.

Helburua herrian egiten den ekintza oro printzipio horiek kontutan hartuta. Ongizate lantaldetik ekintzak betaurreko hauekin baloratu nahi dira. Balorazio azkar bat egin da:

- **Bokata jana:** Herri guztiari zuzendua. Bokata jana antolatzerako garaian ere 3 printzipioak kontutan hartuko dira. Boluntarioen lan bat egote positibo baloratzen da. Herritik herriarentzat.
- **Martxoak 8, azaroak 25:** Hemendik aurrera pisu handiena emakume taldeak eramango du. Bertsolariak kontratatzea izango da lantaldearen lana. Hurrengo urterako beste era bateko ekintza egitea planteatzen da. Aniztasuna, publikotasuna eta herritik sortua.
- **Topagunea:** lazkoa herritar denei zuzendua izan zen eta ez zuen gasturik izan. Errefuxiatu egunaren helburua dirua ateratzea izan zen.
- **Gimnasioa:** jarri aurretik betaurreko hauek jantzita hausnarketa egin beharko da. Horretarako arautegi bat egin beharko da. Ondo pentsatuz jarritako arauak zein eragin izan dezaketen. Txartela aktibatzearekin batera araudia banatu daiteke. Herritarrak ez direnei zabal ote daitekeen planteatu da.
 - Publikoa izatea.
 - Adin ezberdineko pertsonak lekua izatea.
 - Erabilera anitzeko materialak jarri, ez zurrinak.
 - Panelak hizkuntza ezberdinetan jartzea.



- **Tipi-tapa eta Memoria tailerra** : Jubilatuei zuzendua. Memoria tailerrean boluntarioek eramaten dute aurrera beraz herritik herritarrentzat konplitzen du.
- **Harrera eguna**: Herritar denei zuzendua, etorri berriak.
- **Janari banaketa**: Behar zehatzak dituzten herritarrei zuzendua

4. BERDINTASUN PLANA:

Herrian berdintasuna landu ahal izateko gida badugu. Plana egina dago eta hori aurrera ateratzea helburu bezala hartzea planteatzen da 2020 urterako. Lantaldeko kideak irakurketa sakon bat egin eta urrian plana lantzea planteatzen da. Aurrez aipatutako hiru printzipio orokorrei parekidetasunari dagozkion printzipioak gehitzea planteatzen da.

4. HARRERA EGUNA.

Harrera eguna gertu denez hurrengo bilerarako errolda datuak ekartzea planteatzen da. Liburuxka berri beharra egongo da.

10. BERDINTASUN PLANA:

2012an Itsasondoko Berdintasun plana eratu zen Itsason, bertako planteamenduak berrikusi eta aurrera eramanez edo ez planteatzea ikusten da. Lan esparrura sarrera errazteko eskualde mailan kudeatzen diren diru laguntzen baitan, berdintasun teknikari bat kontratatzeke proposamena luzatu da. Dauden eskaera eta beharren arabera onartuko dute proposamena edo e ez.


11. GIMNASIOA:

Idoiak aipatu du zein den behar duen materiala:

- 10 zinta.
- 2 pintxo esterilak eta zintak jartzeko. (horretarako bi zulo ea egin daitezkeen ikusi).

500 euro daude gastu horietarako. Horrez gain lantaldean gimnasioan egin beharreko hainbat kontu planteatu dira:

- Dagoen armairua kendu eta balda batzuk jartzea.
- Zein material egongo den eta hau nola antolatuko den pentsatu.
- Dagoen materiala zaintzeko (badago Udalekoa ez den materiala)



ondo berezitu zein den Udaletxeko materiala eta zein pribatua.

- Dauden mahaiak kendu. (Kultur gunearen atzealdean joan daiteke bat, liburutegian ere mahai baten eskaera dago, lekua badago jaitsi daiteke)
- Makinak: ea herritarrengatik zein erantzun dagoen. Erosi behar badira Idoiaren gomendioa merkeenak ez erostea izan dela dio Marijok. Seguruak eta bestelakoak kontutan hartu beharko dira.

12. BESTEAK:

Tratu txarrak: Emakundetik Itsasondon egondako tratu txar kasuen informazioa eskatu dute. Gizarte Zerbitzuetatik luzatuko dira datu hauek.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
HURRENGO BILERA		
2019ko ekainaren 6an		
Jorratuko diren gaiak:		
<ul style="list-style-type: none"> • Aktaren onarpena. • Harrera eguna. 		